

Bakarrik ixten den izozkailurako poltsa


Zoragarria da janaria plastikozko poltsan sartu eta izozkailuan gorde ahal izatea, baina ez al da apur bat nekagarria goialdeari eutsi, sobera dagoen airea atera eta kremaiera itxi behar izatea? Esfortzu hori guztia saihesteko moduren bat izan behar da. Izango ote da esperimentu hau helburu hori lortzeko urrats bat? Hala izan bedi. Baliteke “izozkailurako poltsaren tiraldiaren” gaitz kronikoaren amaiera ikustea.

BEHARKO DUZU

- Izozkailurako poltsa kremaieradun bat
- Hiru arkatz zorrotz
- Ura

METODOA

1. Bete izozkailurako poltsa urez, $\frac{2}{3}$ gutxi gorabehera.
2. Itxi poltsa, normalean egingo zenukeen bezala.
3. Poltsaren goialdeari eutsita, zulatu albo bat arkatz batez ur-mailatik behera, eta jarraitu arkatza sartzen, poltsaren beste aldetik atera arte.



4. Errepikatu hirugarren urratsa bigarren eta hirugarren arkatzekin.
5. Izozkailurako poltsak zulo guztiak itxiko ditu; hala egingo du, behintzat, arkatza barruan dagoen bitartean!



ZIENTZIA-AITZAKIA

Lehertzen ez den puxikaren antzera (106. or.), izozkailurako poltsa askotako plastikoa elastikoa da berez, neurri bateraino. Objektu zorrotz batekin zulatzean, plastikoak zigilu bat eratzen du zuloaren ertzaren inguruan. Zoritxarrez, gaitasun hori galdu egiten da arkatza kentzean eta, beraz, zuloa ez da berriz ixten; kontuz ibili.



KONTUZ!

Esperimentu hau etxetik kanpora edo harraska edo bainera batean egitea komeni da; arkatza kentzean, ingurua zikindu dezakezu kontuz ibiltzen ez bazara. Ekologia dela-eta izozkailurako poltsa bat alferrik galdu nahi ez baduzu, gaurko janari gozoa prestatzeko izozkailutik ateratako poltsa bat erabil dezakezu.